

Coppola: «Ez dit ardura nire filmek arrakasta duten edo ez, nik ikasteak baizik»

Bere lanaren hastapenetara itzuli da zuzendaria, berak idatzitako gidioa erabili baitu 'Tetro'-n

Agentziak Madril

Aurrerantzean berak idatzitako gidioetan oinarrituriko filmak bakarrik zuzenduko ditu Francis Ford Coppolak. «Ez dit ardura nire filmek arrakasta duten ala ez, nik jartzen dut dirua; axola zaidana ikastea da», adierazi du. *Tetro* filmarekin hastapenetara itzuli da Coppola, berak idatzi baitu gidioa. Filma asteburu honetan estreinatuko da Euskal Herrian.

«Film bakoitzak nire sentimenduak zauritzen ditu, porrot handiak izaten baitira. Berehalako porrota izan ez zen bakarra *The Godfather* izan zen, eta, hala ere, kritika txar bat jaso zuen. *Times*-eko kazetariak esan zuen *Apocalypse Now* porrot handia zela, eta gero kontrakoa aitortu dute», adierazi du Coppolak.

Lekuz Leku hiria eszenatoki duen dantza jaialdia egingo dute gaurtik aurrera Bilbon

Guggenheim eta Euskalduna jauregiaren arteko ibilbide artistikoa proposatzen du ekitaldiak

Erredakzioa Donostia

Lekuz Leku jaialdiak dantza Bilboko hiri paisaian txertatuko du gaurtik larunbata bitartean. La Fundicion aretoak antolaturiko ekimenak dantza emanaldiak, hitzaldiak eta bideo saioak eskainiko ditu. Guggenheim museoaren eta Euskalduna jauregiaren arteko ibilbidea izango da dantza konpainien eszenatokia.

Hiriak Dantzan proiektuaren barruan dago Lekuz Leku. Proiektu horrek Europako eta Latinoamerikako 30 jaialdi biltzen ditu. Esparru arkitektonikoak sormena garatzeko elementu gisa lantzea da jaialdi horien xedea, baita hiri esparruen eta dantza-artearen lotura sustatzea ere.

Gaur Nuria Fontek eskainiko duen hitzaldiak emango dio ha-



Kukai taldeak *Hnuy Illa* lanaren zati bat emango du. KUKAI-TTANTTAKA

siera Lekuz lekuri. Dantzak ikusentzunezko sormenean izan duen presentzia azalduko du. NU2'S sormenerako elkarteko proiektu zuzendaria da Font.

'Butoh' estiloa ikusi eta ikasi

Kukai taldeak parte hartuko du Lekuz Leku jaialdian, *Hnuy Illa* lanaren zati bat emango baitu, baina batik bat kanpoko dantza taldeek osatuko dute egitaraua, tartean Frantziatik, Japoniatik, Ingalaterratik, Greziatik, Herrialde Katalanetatik eta Espainiatik etorritakoek.

Biharko dantza saioetan, hip hopak bi ordezkari izango ditu: Bartzelonako Brodas eta Alemaniako Storm taldeak. Horiez gain, Londresko Bonachela konpainiak *Soledad* interpretatuko du, eta Natxo Monterok *Cuádra-T*.

Japoniako *butoh* dantza mota ikusi eta ikasteko aukera eskainiko du jaialdiak, Moeno Yakamatsuren eskutik. Nats Nus, Cetra, Losdedae eta Entremán konpainiek ere parte hartuko dute Lekuz Lekun. Egitarau osoa www.lekuzleku.com webgunean ikus daiteke.

→ Laburrak

Lankidetzat ituna sinatu du Unesco Etxearekin


EUSKALTZAINDIA | Ruper Ormaza Unesco Etxeko lehen-dakariak eta Andres Urrutia Euskaltzaindiko buruak bi erakundeen arteko lankidetzat hitzarmena sinatu zuten atzo, «euskara, euskal kultura eta, oro har, munduko hizkuntz ondarearen egoera ikertzeko, irakasteko eta zabaltzeko ekimenak» eta euskararen normalizazioari buruzko proiektuak gauzatzeko. Hitzarmenak hiru urteko iraupena izango du, eta berau koordinatzeko, Jarraipen Batzordea eratu dute.

Pasaiaiko Hugoenea etzi hartuko du lehen idazlea

LITERATURA | Frederic Mayol izango da Hugoenea etxea erabiliko duen lehen idazlea. Katalana da, eta bere hirugarren eleberria (*El lladre de paraules*) amaitzekotan da. Hain zuzen, asmo horrekin helduko da etzi Pasaia (Gipuzkoa). Euskal Idazleen Elkarteak eta Pasaia-ko Udalak, Hugoenearen sustaileek, ongietorria egingo diote. Idazleei beren lana egiteko inguru egoki bat eskaintzeko sortu dute Hugoenea.


Kioskoa > harpidedunentzat SARRERAK

Atera etekinak Berriaren harpidetzari!



Atera etekinak Berriaren harpidetzari!

berriak gonbidatzen zaitu: harpidedunentzat **18 sarrera** ditugu



ZARAMA

'Birziklatuaren bira'



GAZTELÛA MAULE
Ekainak 27, larunbata
20:00



PIRRITX, PORROTX ETA MARI MOTOTS

'PIRATAK'

KURSAAL KONGRESU JAUREGIA
DONOSTIA
Ekainak 27, larunbata
11:00

Sarrerak eskuratzeko, deitu **ekainaren 24an**, harpidetzat sailera.
(Orduetgia: 09:30-11:30. Telefonoa: 943-30 43 45)

Jasotako dei guztien artean zozketa egingo dugu.
Saridunen izenak ekainaren 25ean argitaratuko dira egunkarian.

ANTOLATZAILEA:

LastTourInternational

ANTOLATZAILEA:



Aukera ezazu, bizi euskaraz berria

HARPIDETZA SAILA:
Martin Ugalde kultur parkea z/g - Andoain
Tel.: 943-30 43 45 • kioskoa@berria.info